



ZAINTZA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA

1.- HELBURUA

Helburua **gurasoek duten premia bati erantzutea** da. Hau da, gurasoek lana daukaten ordutegietan eta umeen eskolaz kanpoko ordutegian umeak zaintzeko antolatzen dan zerbitzua da. Zerbitzu hau **Guraso elkarteak antolatzen du**, premien arabera.

2.- ADIN EREMUA

Zaintza zerbitzua 2 urtetik gorako umeentzako zerbitzua da (2 urtekoak barne), adin-mugarik gabe.

3.- EPEALDIAK, ORDUTEGIA ETA MUGAK

- Goizeko zaintza: Irailetik ekainera bitartean, 7:30etik 9:00etara.

Egun solteetan etor daiteke, betiere aurrez abisatuta (ahal izanez gero, behintzat). Zaintzaren funtzionamendua egokia izateko, komeni da jakitea zenbat ume egongo diren egun bakoitzean.

4.- METODOLOGIA

Zaintzaren dinamikaren **ardatzetako bat gosaria** da, eta umeei bertan gosaltzeko aukera ematen zaie. Umeak etortzen diren **orduaren arabera, gosaria ematen zaie edo ez**. Hauxe da irizpide orokorra:

- Bertan gosaldu ahal izateko, goizeko 8:00etarako umea iakstolan egon behar da, 8:00etan baita gosaltzeko ordua.
- 8:00ak ondoren datozen umeak gosalduta etorri behar dute zaintzara.

5.- BALIABIDEAK

- Zaintzailea: Guraso Elkarteak BAIKARAREN bitartez kontratatzen du langilea zaintza zerbitzua emateko.
- Lekua: Zaintza zerbitzua ikastolako Guraso Txokoa ematen da.

6.- PLAZA ERRESERBA

Plaza erreserbatu nahi izanez gero, ekainean izena ematerakoan, 140€ fidantza ordaindu beharko da.

7.- IZEN EMATEA

Zaintza izena emateko epea kurtso bukaeran da. Norberaren ardura da umearen datuak eta dagokion fitxa bete eta ikastolan aurkeztea. Erantzuna emateko zaintza zerbitzuko arduradunak interesatuekin harremanetan jarriko dira.

- **Kupoa 14 umekoa** da, lehentasuna urte guztian joango diren umeek izango dute.
- Gutxieneko ume kopurua, **7 ume** izango da.

8.- EZ-OHIKO ZERBITZUA EDO LARRIALDIKOA

Zerbitzu honi esker, umeak egun solteetan eraman daitezke zaintzara. Horretarako gutxienez 24 ordu aurretik abisatu behar da. Zerbitzu hau plazak libre daudenean bakarrik eskainiko da.

9.- BAJAK

Baja ematen duenak, fidantza galduko du eta berriz apuntatzean ez du lehentasunik izango.

10.- KUOTAK

Zaintza zerbitzuaren kostua, zerbitzua jasotzen duten **gurasoek finantzatu behar dute**. Egindako kalkuluen arabera, hauexek dira gaur egun dauzkagun **kuota-irizpideak**:

- Hilero 70€/ume bakoitzeko.
- Kuotak era honetan kobratuko dira:
 - Irailetik aurrera, bihilabetero 140€
 - Kuota horiek norberak kontu korrontean ingresatuta.
- Egun solteetan etorri gero, 10€ eguneko. Kuota hori norberak kontu korrontean ingresatuta.

11.- BESTELAKO OHARRAK

Eskaintzen den gosaria: esnea, gailetak, zerealak, fruta, Cola Cao... Norbaitek **zerbait berezia behar izanez gero** (esne, gaileta edo jaki bereziren bat), **norberak ekarri** beharko luke.

SATURRAN

GURASO ELKARTEA

saturren@gmail.com